



## SI CAE CABALLO, CAE IMAGEN

Zuhar Iruretagoiena



Ayuntamiento  
de Vitoria-Gasteiz  
Vitoria-Gasteizko  
Udala

*Si cae Caballo cae Imagen* proiektuak Western generora hurbiltzeko ariketa planteatzen du. Horrelako filmetan emakumeei, zaldiei eta paisaiari ematen zaien tratamendua zalantzan jartzea du ardatz. Zehazki, animaliak, paisaia eta emakumeak makurtu eta menderatu beharreko objektu gisa nola irudikatzen diren esperimintatzea eta aztertzea.

Gure imaginario kolektiboa eraikitzen duten elementu irudikatzaile horien aurrean jarrera hartzea proposatzen du; praktikatik eta arte plastikoen berezko esperimintazio-esparru batetik abiatuta ikuspuntu hori aldaraztea eta, horrenbestez, objektu-estatus horretatik askatzea emakumearen, zaldiaren eta paisaiaren irudikapena.

Gauzen irudia proiektatzea baino gehiago egin nahia bera, gauza bere horretan izan nahia jorratzen du proiektuak bideo, eskultura eta argazkigintza diziplinen bidez. Hori dela eta, emaitzak interpretaziorako bide ematen du, non zentzu propioko eraikuntza-katea gisa ezartzen saiatzen diren talde edo sistemak proposatzen diren.

---

*Si cae Caballo cae Imagen* plantea un ejercicio de aproximación al género del cine Western. El proyecto se centra en problematizar en torno al tratamiento que en este tipo de representación fílmica se le da a las figuras de la mujer, el caballo y el paisaje. En concreto, discurren en experimentar y desgranar como se construye la representación del animal, el paisaje y la mujer como objetos que hay que doblegar y someter.

La propuesta propone tomar posición de estos elementos representacionales que construyen nuestro imaginario colectivo para desde la praxis y desde el crear un campo de experimentación propia de las artes plásticas, conseguir subvertir este punto de vista, liberando, tanto a las representaciones de la mujer, el caballo y el paisaje, de este estatus objetual.

El proyecto, aborda desde las disciplinas del vídeo, la escultura y la fotografía, este querer hacer, querer ser la cosa en sí, más que proyectar su imagen. Es por ello, que, el resultado plantea un territorio abierto a las interpretaciones donde se proponen grupos o sistemas que tratan de erigirse como cadenas de construcción de sentido propio.